







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %0,6 egin zuen gora abenduan, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %4,5 jaitzi zen; etxekoan eta zerbitzu arloan, berriz, %14,8 eta %7,8 igo ziren, hurrenez hurren. 2015ean kontsumo metatua %1,8 egin zuen gora, 2014an izandakoarekin erkatuta; etxeko sektorean %3,4 igo zen, zerbitzuan %2,7 eta industrian, ordea, %0,2 jaitzi zen; itsas eraikuntza eta konponketan %29 egin zuen gora, burdinazkoa ez den metalurgian %4,7 eta kautxuaren eratorrietan %2,7. Behera egin zutenak, aldiz, kimika sektorea (%1,4) eta siderurgia (%1,1) izan ziren.

Gas naturala







Abenduan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %12,6 egin zuen behera, 2014ko abenduan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %3,1 jaitzi zen eta gainerako sektoreena %14,4. 2015ean izandako kontsumo metatua 2014koaren pare egon zen (-%15,7 CCTT-n eta +%4,2 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Azaroan, garraioan erregaien kontsumoa %7,8 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinaren kontsumoak %3,1 egin zuen gora eta A gasolioarenak %8,3. Azaro arteko kontsumo metatua %3,2 igo zen, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinena %1,2 jaitzi zen eta A gasolioarena, ordea, %3,7 igo zen.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera






Petrolioaren kontsumoa munduan
 Abenduan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 94,1 milioi kupel izan zen (2014ko abenduan izandakoaren aldean, %0,6 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1,4 egin zuen gora kontsumoak, 13,5 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,1 egin zuen gora, eta 11,3 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %1,2 jaitsi zen, eta 19,2 Mbpd kopuruan kokatu zen.
 Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, oro har; zahazki, Txinan %2,7, AEBetan %1,4 eta Europar Batasunean %1,4.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %0,3 egin zuen gora abenduan, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. 2015ean kontsumoak %4,8 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen abenduan, %2,1, 2014ko abenduan izandakoaren aldean. 2015ean kontsumoak %2,2 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %4,6 egin zuen gora azaroan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %2,7 igo zen eta gasolioena %5. Azarora bitarteko kontsumo metatuak %3,4 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,6 igo zen gasolinena eta %4 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %10,2 egin zuen gora azaroan; azarora bitarteko kontsumo metatuak %4,5 egin du gora, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 37,7 \$ (34,6 €) izan zen abenduan. Urte mugikorren batez besteko prezioak %47 egin zuen behera (%36,8 eurotan). 2004 urteaz geroztik ez zen 40 \$ azpitik.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 52,6 €/MWh izan zen abenduan; duela urtebetokoaren aldean, %10,8 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 18,3 €/MWh izan zen azaroan, eta %22,2 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Abenduan, EGIX-en prezioa 15 €/MWh izan zen (2014ko abenduan izandakoarekin alderatuta, %30 jaitsi zen). Spot merkatuetan, abenduan, Henry Hub-en prezioa 6 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 23,5 €/MWh (2014ko abenduan izandakoaren aldean, %36 eta %44 egin zuten behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, azaroan, gasolioaren prezioa 0,98 €/l izan zen (urtebetean %13,9 jaitsi da), eta gasolinarena 1,12 €/l (urtebetean %4,3 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8,3 €/t izan zen abenduan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %19,6 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.